

Mitxelko Uranga, saiogilea

# “SISTEMAREN HELBURUA EZ DA PENTSARAZTEA”

Berango, 1978. Iazko Euskarazko Saiakerako Euskadi Saria jaso zuen *Tartaroa. Mina, boterea eta egia* (Pamiela) saioaren bitartez. Globalizazioa eta kontsumismoa dira liburuaren hari nagusiak. Ondoren, Miguel Unamuno Saria irabazi du *Misentropia* saioari esker. Zazpi saiakera liburu argitaratu baditu ere, ez da bereziki ezaguna euskal letren munduan. Filosofian dokorea da. Gai hori irakasten du Sopelako Ander Deuna ikastolan.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: DANI BLANCO



**Euskadi Saria jaso ostean, “ez nuen inondik inora espero, ni ez nau inork ezagutzen” esan zenuen. Tira, funtsezkoa liburu da, ez egilearen izena, ezta?**

Ez dakit guztiz horrela izaten den. Sarien inguruan iritzi txarra daukat. Euskal literaturaren munduak endogamia moduko bat bizi du, epai-mahaikideek badakite nork idatzi duen, lana anonimoa izan arren. Adibiderako, Unamuno Sarira bi testu bidali nituen, eta epaile batek esan zidan: “Bai, eta beste hori ere zurea da”. Bai bibliografiarengatik bai idazteko moduarengatik, gure aurkez-

pen txartela barruan doa. Areago Euskadi Sariaren kasuan, liburuak eta izenak ezagunak izanda, bada, ez nuen inondik inora espero, Eduardo Apodakak irabaziko zuelakoan nengoen.

## Inportantea al da saritua izatea?

Saritua izateak badu bere alde ona eta txarra. Ona, zurekin elkarrizketa hau egin izana. Baina, batez ere, alde txar bikoitza du. Batetik, besteen kritiken jomugan jartzen zaitu, egiak ez direnak entzun behar dituzu. Adibiderako, idazle batek ni propagandista hutsa

naizela esan berri du, postuak igo nahi ditudala. Ez daukat posturik igotzeko beharrik, nagoen lekuan ederto bainago. Ez dut inoren propagandarik egiten, frankotiratzailea naiz. Bestetik, plazagizona ez naizen neurrian, ez dut hedabideetan agertzeko inolako desirarik, ezta beharrik ere, ez naiz liburuez biziko eta. Anonimatua oso gogoko dut. Zazpi saio argitaratuta izanda ere, inork gutxik ezagutzen ninduen saritua izan arte, ordea, beste idazle batzuk erabat mediatikoak dira ezer gutxi eginda.

**Idazleak, eta saiogileak are gutxiago, ez dauka beste ofizio mediatikoagoen famarik.**

Orain argitaletxearen munduan apur bat sartzen ari naizenez [Sorzain proiektuaren bultzatzaileetako bat da], merkatuaren jukutriez jabetzen ari naiz. Idazle batek salmenten %10 irabazten du, eta bitartekaritzak gainerakoa; banatzaileak %50, hasteko. Beraz, desoreka itzela da. Idazleak kontsumo gai bihurtu gara. Proportzioan irakurle baino askoz idazle gehiago gara, ez daukagu beste

baztertu dituzten ikusi besterik ez dago, LOMCE da horren adibide. Lehen Filosofia gaia derrigorrezkoa zen Batxilergoko bigarren mailan, orain letretakoentzat soilik eta aukeragarri. Argi dago, sistemen helburua ez da pentsaraztea.

**Greziako mitologia abiapuntu hartu duzu Tartarora saioan, egungo gizarte globalizatua eta kontsumista aztertu aldera.**

Mitoak gustuko ditut, ez bakarrik greziarrak. Euskaldunak, eskandinaviarrak edota zeltak ere bai. Hala ere, liburuan mitoak ez dira oinarria, esan nahi dudanerako aitzakia baizik. Euskal mitologian ez nuen aurkitu adierazi nahi nuenarekin harremana duen ezer. Beharbada, kristautasunak euskal mitoak itxuraldatu zituelako. Mito greziarrak ere aldatuak iritsi zaizkigu, baina greziarrek bi abantaila eskaintzen zizkidaten: denontzat oso ezagunak izatea, eta esan nahi nuenarekin paralelismoa izatea.

**Zer dela Tartarora?**

Greziar mitologian hiru infernu eremu ziren, Tartarora zen horietako bat, non bizigabeek eta bizidunek denek elkarrekin sufritzen zuten. Paralelismo horrek laguntzen du liburuaren tesietako bat ulertzen. Egun denok sufritzen dugu, lehenago herri xeheak soilik, gaur berriz, bai ekologiaren, bai izuaren, bai zaurgarritasunaren menpe gaude denok.

» **“Oligarkiak sustatutako hezkuntza sistemak gizaki abstraktua, despolitizatua eta arrunta nahi du”**

**Mundu globala eta euskal errealtatea uz-tzen saiatu zara.**

Aurreko saiakeran hipermmodernitate edota kapitalismoa izan ditut hizpide, horien aurreko laueta berriz, euskal kultura. “Zer da euskalduna?” galderari mila buelta eman dizkiot eta erantzunik ez dut. Hamaika definizio daude, baina, nahaspila izugarria ikusten dut. Ez dut uste definizio bakarra eman behar diogunik. Definizio bakarra ematen tematzen gara: euskalduna, euskal hiztuna, euskal kulturaduna, *vascoa*. Onartu behar dugu definizio anitz dagoela. De-

finizio horien errizoma bilatzen edota sinergia batzen saiatu beharko genuke, aniztasuna aintzat hartuz bide bateratua joaten. Antzua da definizio bakarrarekin geratzeara.

**Desertua da saioaren beste ardatzetako bat.**

Zygmunt Baumanek “modernitate likidoa” adierazpena famatu zuen. Jendar-te solido izatetik likidoa izatera pasatu gara. Nik likido orde, harea garela diot. Desertuaren irudia berebizikoa izan zait saioa gauzatzeko.

**Nolakoak dira zure ikasleak?**

Ez dira ikasleriaren erreferente. Uribe-Kostako ikastola batean ematen dut klasea, 16-18 urte artekoekin batxilergoan. Bertako familiak egoera sozio-ekonomiko altukoak dira. Hipermmodernitatearen paradoxa bizi dugu: sinestarazten zaigu autonomoak eta askeak garela, baina juxtu aurkakoa gara. Beraz, ikasleek ere pentsatzen dute inplikatuak eta helduak direla, baina, adibidez, arrazakeriaz eztabaidatzen dugunean ultraeskuindarren mezueta-tik hurbil daudela ohartzen gara. Beren diskurtsoa matxismoaren aurkakoa da, baina praktikan galduta daude. Paradoxa batean bizi dira. Nartzisistak baino, Michel Maffesoliek dioenez, *Homo Esteticus* dira. “Gozatzea eta gozatzea” baino ez dute buruan. Egunkoaz gozatu, gainerakoa ez da euren ardura. Gogoeta bat eskatzen zaienean, %80k esaldi bera darabil: *Carpe diem*.

**Heziketa sistemak ez du laguntzen.**

Hipermmodernitatearen ezaugarri bat paradoxa da. Gazteen artean lehen paradoxa Batxilergoaren lehen mailan ematen da: “Gorrito dut filosofia, pentsarazi egiten didalako. Orain arte ez dut halakorik egin”, esaten dute. Heziketa sistemak ez du bermatzen autonomiarako gaitasuna, enpresa munduak ezarria da eta enpresariak heziketa sistema panazea bezala saltzen digute.

**Desertu globalizatua internet da faroa. Nola bizi duzu internet, eskolan?**

Irakasle batzuek sakelakoa gelan sartzea debekatzen dute. Niri arriskutsua izanda ere, zer edo zer azaltzen ari naizenean, “erratu zara horretan” entzutea interesgarria iruditzen zait. Jose Antonio Marina pedagogoak dioenez, internet eta bitarteko gailuak neutroak dira.

idazleen lanak irakurtzeko betarik. Antza, publizitatearen bidez zabaltzen diren liburuak irakurtzen dira. *Tartarora. Mina, boterea eta egia* liburuaren salmenta oso urria zen, baina Euskadi Saria jasotzeaz batera, bat-batean, askoz gehiago saldu da.

**Kultura espektakulua da oroz gain. Merkatuak agintzen du. Irakasle zaren aldetik, nola bizi duzu zuk egoera hori?**

Oso txarto. Mundu horrek heziketan nola eragiten duen egunero ikusten dut. Filosofia eta giza arloko ikasgaiak zelan

Mailu bat bezala da, apurtu dezakezu buru bat, baina balio dut etxe bat eraikitzeke ere.

### Gazteria ez da eredu, klase politikoa ere ez.

Politikariak ospearen eredu bilakatu dira. Azkeneko hamarkadetan politikak behera egin du nabarmen. Podemos Ahal Dugu fenomeno populista da salbuespena, populismoak neurri batean piztu du lokartuta zegoen gazteriaren multzo bat. Politikan eszeptikoa baino, ezkorra naiz, ez dut inolako konfiantzarik alderdietan. Prometatzen dutena eta gero betetzen dutena ez datoz bat, edo oso gutxitan. Nik politika aldarrikatzen dut alderdikerietatik at antolatu daitekeen neurrian, herri mugimenduen bidez egindakoa, hauen bidean erein daiteke aldaketarako hazia. Baina herri mugimenduek ez dute 60, 70 edo 80ko hamarkadetakoa bizitasuna, pil-pilean dagoen feminismoaren salbuespenaz. Gazteen artean, oro har, ez dago politikarako grinarik, kontsumitzeko aukera duten bitartean ez dute mugitzeko nahikaririk.

### Kultura politiko berri baten sorburua hezkuntzan dagoela esan ohi da.

Baina hezkuntza klase politikoaren esku dagoen bitartean, zelan egin? Mende baldeko sisteman hezkuntza diseinatu ta dago enpresak behar duen langilea ekoizteko. Azken teknologia berriak direla eta, lanpostu asko desagertuko edo eraldatuko dira. Droneek eta gailuek ordezkatuko gaituzte. Enpresak aldatzen ari dira eta langile mota ere bai, horretarako heziketa sistema aldatu behar izan badute ere. Gaitasunetan oinarritutako pedagogia landu ezean, nekez sortuko dugu kultura politiko berri bat.

### "Jainko berria" bilatzen duen fededuna bizirik dago.

Nietzschek zioenez, jainkoaren heriotzak ekarriko zituen jainkoaren itzalak. Jainkoaren ordezkoak, zientziak, politikak eta kontsumismoa, horiek indarrean daude. Hainbat jainko dago, non eta hipermodernitate horretan, fedearen egarri denak aukeratu dezake nahi duen jainkoa. Oligarkiak sustatutako hezkuntza sistemak gizaki abstraktua, despolizitatua eta arrunta nahi du. Sistema arduratzen da bere beharrez. *Ogia eta Zirkua* dagoen bitartean ez duzu ezeren aurka altxatu beharrik.

## SORZAIN ARGITALETXEA: LIBURU ANTAGONISTAK SORTZEKO XEDEZ

Sorzain argitaletxeak irekia izan nahi du. *Erabakitze eskubidea, botere eragilea* (egile askoren artean) eta *Pott Banda. Eki-lisbrista bihotza* (Jon Kortazar) dira bere lehen bi argitalpenak. Mitxelko Uranga da proiektuaren eragileetako bat: "Sor-zain izaki mitologikoa da. Sorgin gaizto bat ei zen, umeak jaio zain egoten zena haiek akabatzeke. Guk, oster, sorzainek umeen ibilbidea zaintzen zutela pentsatzen dugu. Gure kasuan umeak liburuak dira.

Agitaletxe txikiak ixten ari dira, nagusiak ez dira aise bizi. Saiakera ez ote den behar bezala argitaratzen ipini dugu auzitan: "Sor-zain sortzean ez dugu adierazi nahi orain arte pentsamendua edota saioa ez dela zabaltzen behar bezala, ezta guk formula berria asmatu dugunik ere. Baina, egia zor, beste argitaletxeek argitaratzen dutena ez da hainbeste irakurtzen. Azken urteetan saiakera pilo idatzi da eta zenbat irakurri diren aztertzen badugu, oso gutxi dira. Saiakerak ez dira irakurlearengana heltzen, ez dira irakurtzen. Idazten dugunok irakurtzen diogu

elkarri. Eta hori ere, egiten den arabera, oso gutxi. Pamielak asmatu du Upaingo sailarekin. Sailaren arrakasta da, ziur aski, saio laburrak direlako. Hori da nolabait gure asmoa. Saiakerak akademikoa izan beharrean laburra eta arina behar du".

Irakurle berririk ba ote?: "Guk gazteria 'bezero' potentzial ikusten dugu. Ikasleei zer-nolako egoera bizitzera iritsi gaitzkeen argitzen zaienean, kezkatzen dira. 'Baina zer egin daiteke?', galdetzen dute. Badituzte beren kezak. Gure ustez, liburuaren euren bidea bilatzen laguntzeko 'gailua' izan daiteke. Jendartearen aldaketa horren bidez baino ez dugu ikusten. Sorzain-en helburua kultur eragile izatea da, batez ere, eragile politikoa izatea, ez ideologia markatu batekin, baina bai herri mugimendua aktibatzeke moduko politika eragiteko belaunaldi berrietan".

Arriskatu behar da beraz?: "Bai, eromen puntu bat behar dugu. Argitaletxeak enpresa dira, gu kolektibo bat gara, eta dena musu-truk egiten dugu. Etekin ekonomikorik atera behar ez dugunez, bestelako lasaitasunez heldu diogu ekimenari".

» "Alderdi politiko guztiek aldarrikatzen dituzte demokrazia eta askatasuna, betiko hitz anpuloso eta polit horiek. Nola daiteke, ordea, eskuin eta ezker muturreko alderdiek aldarri bera egitea?"

### "Demokratizazio" eta homogenizazio bortitza gertatzen ari da.

Demokrazia hitza eufemismo hutsa bihurtu da, ez du ezertarako balio. Alderdi politiko guztiek aldarrikatzen dituzte demokrazia eta askatasuna, betiko

hitz anpuloso eta polit horiek. Nola daiteke, ordea, eskuin eta ezker muturreko alderdiek aldarri bera egitea? Hitzek, definizioek, ez dute balio, definizioak ezereza bihurtu dira. Demokrazia ezereza da.

### Nola gaingitu hori?

Nekez, Trump fenomenoak ikusirik... Horrek eskuinaren loratzea ekar dezake Europara. Zer etor dakiguke? Nire ametsa kapitalismoa bukatzea da, baina posible ote? Aldaketa beharrezkoa da, baina ez da etorriko jendearen aldetik, kataklismo bat medio edo kapitalismoaren beraren inplosioz gertatuko da. Joseba Gabilondok bere azken liburuan esaten du, "hazkunde honek gainez egingo dio munduari, ez dago ongizate-estatua izaterik guztiontzat, ezinezkoa da". Beraz, klase ertaina desagertuko da, desberdintasun ekonomikoak are gehiago handituko dira, eta "hirugarren mundu" deiturokoaren altxamendua etorriko da. Gero eta gehiago dira izorratuak. Nik ez dut zer onik espero. ■